

## C AUKERA

### Diaghileven Ballet Errusiarrak

Artearen historian badira garai batzuk bereziki zirrargarriak direnak bere aberastasun eta konplexutasunagatik. Aberastasunean eta konplexutasunean gutxi konpara daitezke "Diaghilev aroa" deiturikoekin, eta, hala ere, gutxi dira, azaletik bada ere, dantzaren etorkizuna ez ezik bere garaiko arte guztiak eraldatu zituen istorio hau jasotzen duten eskuliburuak. Ballet Errusiarrak Parisera iristeak zer suposatu zuen ulertu gabe, zaila da XX. mendeko lehen abangoardia artistikoen, musikan, arte plastikoetan eta eszenikoetan Parisen lortu zuten garaipena ulertzea<sup>1</sup>.

Zoritxarrez, eta dantza munduan bertan, ikasle belaunaldi berriek Fokine, Massine, Nijinsky edo Nijinska izenak alde batera uzten dituzte, eta balletaren historia Petiparekin amaitzen dela pentsatzen jarraitzen dute<sup>2</sup>.

Horrela, Ballet Errusiarrak Frantziako hiriburura iritsi ziren antzoki denboraldi historiko paregabei hasiera emanez<sup>3</sup>. *Petrouchkarekin*, adibidez, Fokinek bere lanetan sartutako koreografia-erreformei buruz hitz egiteko unea iritsi da. Erreforma horien emaitzak 1914ko *Timesera* bidalitako "Eskutitz" ospetsua bilduta daude, "koreografiaren bost printzipio nagusiak" izenpean. Fokinek Wagnerrek urte batzuk lehenago opera-generoan sartu zituen erreforma berberak balletan aplikatzen ahalegindu zen. Hau da, Fokinek balleta ordura arte ezarritako konbentzioetatik askatzeko garaia zela pentsatu zuen. Horrela errealismoa ardatz izaten ahalegindu zen, naturalismoa obra bakoitzaren estetika determinatzera behartuz<sup>4</sup>.

#### Erreferentzia:

ABAD, A. (2004). *La historia del ballet y de la danza moderna*. Alianza [162-181 or.]

#### Bideoak:

Ballet osoa

<https://www.youtube.com/watch?v=MeIFo1yYTkY>

Zati bat

<https://www.youtube.com/watch?v=AjkmX21VYeU>

---

<sup>1</sup> ABAD, A. (2004). *La historia del ballet y de la danza moderna*. Alianza Pág. 162

<sup>2</sup> ABAD, A. (2004). *La historia del ballet y de la danza moderna*. Alianza Pág. 163

<sup>3</sup> ABAD, A. (2004). *La historia del ballet y de la danza moderna*. Alianza Pág. 169

<sup>4</sup> ABAD, A. (2004). *La historia del ballet y de la danza moderna*. Alianza Pág. 181



EUSKADIKO ARTE DRAMATIKO ETA DANTZA GOI MAILAKO ESKOLA  
ESCUELA SUPERIOR DE ARTE DRAMÁTICO Y DANZA DE EUSKADI

